BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

5231

49/2015 EBAZPENA, abenduaren 2koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, 2015eko urriaren 30eko 42/2015 Ebazpeneko akatsak zuzentzekoa. Ebazpen horren bidez iragarri zen 2015eko lehen seihilekoan Gobernu Kontseiluak zuzenean emandako diru-laguntzak argitaratzea.

2015eko urriaren 30eko Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren 42/2015 Ebazpenean iragarri zen (217 zk, 2015eko azaroaren 13ko EHAAn argitaratua) 2015eko lehen seihilekoan Gobernu Kontseiluak zuzenean emandako diru-laguntzak argitaratzea. Ebazpenaren eranskinean akatsak antzeman direnez, aurrekoa ordezkatzen duen eranskina argitaratzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 2a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK URRIAREN 30EAN EMANDAKO 42/2015 EBAZPENARENA

GOBERNU KONTSEILUAK 2015EKO LEHEN SEIHILEKOAN ZUZENEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK
2015EKO LEHENENGO SEIHILEKOA

Kontzeptua/onuradunak	Saila	Data	Zenbatekoa
Erabakia, Oinarri E.B.S.ri zuzeneko diru-laguntza ematekoa, bere hornidura teknikoen funtsa indartu dezan	Ogasun eta Finantza saila	2015-02-10	1.000.000,00
Erabakia, Errenteria Musikal MEPUri zuzeneko diru-laguntza bat emateko, 2015eko Musikaldia egiteko (musika-eskolen musika-jaia)	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila	2015-05-05	23.000,00
Erabakia, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako abokatu-elkargoei diru-laguntza emateko dena. Diru-laguntzaren helburua da elkargokideak, 2015ean, doako laguntza juridikoko zerbitzuak eskain ditzaten prestatu eta espezializatzeko gastuak finantzatzea	Herri Administrazio eta Justizia saila	2015-05-12	40.000
Erabakia, EIKEN Elkarteari zuzeneko diru-laguntza emateko dena. Helburua: 2015 urtean Innova Basque Audiovisual proiektua finantzatzea	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila	2015-06-16	50.000
Erabakia, Bizkaiko Hiesaren aurkako Herritarren Batzordeari zuzeneko diru-laguntza ematekoa, gizarte-bazterkeriako egoera larrian dauden kontsumitzaileei eskakizun-maila txikiko arreta eta larrialdi soziosanitarioko zerbitzua eskaintzeko eguneko baliabidea finantzatzeko	Enplegu eta Gizarte Politiketako saila	2015-06-23	50.000
Erabakia, Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza zuzen bat ematea baimentzekoa. Helburua: «Lan eta Gizarte Arloko Auditorian eta Aholkularitzan Espezialista izateko Graduondoko Berezko Titulua» lortzeko ikasketak garatzea	Enplegu eta Gizarte Politiketako saila	2015-06-30	20.000